



Lanerako garaia



Ordiziaren onerako.

Eman Botoa  **EAJ PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna

Erantzukizuna



José Julián IRIZAR

Erantzukizunezko konpromezua Gipuzkoarekin

EAK ekintza konpromezu bat eta duten ardura politikoaren jabe diren autagaiak Gipuzkoa guztiko hiritarren zerbitzura jartzen dizkigute, zeintzuk jokabide zuzen eta garden bat erakutsi duten, etorkizun aurrerakoi bat lortzeko lanean jardun eta mota guztitako korrupzio eta botere gehiegikeriak salatzen dituzten.

Gure ekintza konpromezua

- 1 "Herrigintza Arduratsu" berri bat eragin, hautagaien zuzentasunean, gastuaren zuzentasunean, politika publikoen eraginkortasunean eta gobernu ekintzen gardentasunean oinarritua.
- 2 Maila guztietako esku-hartzeak indartu eta garatu Foru Aldundi eta Gizartearen arteko harremanak areagotzeko. Diputazioa gipuzkoarren udaltxean bihurtu nahi dugu.
- 3 Tolerantzia eta elkar errespetoan oinarritutako kultura gure lurraldean sustatu, bereziki gazteen artean eragiteko "pedagogia tailerren" sormenaren bidez.
- 4 Diputazioa dezentralizatu eta berregituratu, gune politiko-administratiboen arteko subsidiaritatea eta arrazionalitatea sustatuz.
- 5 Azpiegitura produktiboei lehentasuna eman, Errepideen Egitasmo Orokorra amaituz, hiri barianteen egitasmo berezi bat garatuz eta etorkizunerako azpiegituren egitasmo bat zehaztuz.
- 6 Kanpo inbertsioaren ekarrean, beregokitze fiskalan eta ideien politika baten garapenean, ez monetarista soilean, eragingo dituen finantza eta fiskal neurri berrien ezarpena.
- 7 Giza ongizate politiken berantolaketa, sektORIZAZIO zuzen bat eta elkartratzea indartuz..
- 8 Gipuzkoa 2000 egitasmoaren berreskuratzea eta eguneratzea.
- 9 "Gazteriaren Legealdia" ahalbidetu (partaidetza, enplegua, entresalaritza, insumisioaren deszigorpena lortzeko urratzak eta abar sustatuz).

Erkerretik eskuinera eta goitik behera:

Julián Unanue . Beatriz Otaegi . José Luis Tellería . Pello Gonzalez . Amaia Nabarro . Mikel Zabala
Begoña L. Tolosa . Iñaki Alkiza . Imanol Murua . Yon Goikoetxea . Itziar M. Apellaniz . Roberto L. Etxezarreta



GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarak" Kultur
 Elkartea.
Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.
Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
 Ana Irastorza, Rufino Iraola,
 Jon Aizpurua, Gabino Murua,
 Josune Amondarain, Mari Joxe
 Madariaga, Antonio Berasategi,
 Xabier Gartzia, Nagore Goibu-
 ru, Izaskun Salazar eta Aitziber
 Murua.

**Fotokonposaketa eta maketa-
 zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 4.700 ale. 4.500 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRA ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkun-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Burmuin Kaltetuen Elkartea Goierrin

Euskadiko Buruezur Entze-
 falo Traumatismo eta Bur-
 muin Kaltetuen Elkartek bi
 kide ditu Goierrin, Joxpi
 Elorza idiazabalarra eta
 Ekain Arruabarrena lazka-
 tarra. Lehena, mendi istripu
 baten ondorioz egoera larrian
 dago Arrasateko eritetxe ba-
 tean. Ekain berriz, 13 urtere-
 kin txirrindu istripu bat izan
 ondoren kaltetua geratu zen
 eta piskanaka errekeratzen
 ari da. "Baina ez da lehengoa
 ezta gutxigo ere", dio bere
 amak.

Istripuen ondorioz sortzen
 dira burmuineko kalteak.
 Gaur egun gertatzen diren is-
 tripu kopuruarekin, kaltetu
 ugari dago eta hauen artean
 elkar laguntzeko sortu da El-
 kartea. Bertan, erabat gaizki
 edo hain gaizki ez daudenak
 elkartu dira. Burmuina kaltetu
 ezkerro, ondorioak ikaraga-
 rriak dira.

Ondoko laguntza ematen
 du Elkartek: arazoa dutenen

integrazioa lagunduko duten
 zerbitzuen sorrera bultzatu;
 egunero sortzen diren arazoei
 irtenbidea bilatu; esperien-
 tziaz balia daitezen, familiei
 lagundu; Administrazioa
 sentsibilizatu: egoera ezagu-
 tzeaz bat, gizartean dauden
 egiturak kaltetuen beharretara
 egokitu eta zerbitzu berriak
 sortzen ahalegindu dadin.

Kaltetuon kasua berezia da,
 arazoa kolpetik iristen zaie eta
 behin klinikatik atera ezkerro,
 "salduta" geratzen dira. Jaio-
 tzetik paralitiko zerebralak
 direnak berriz, laguntza
 gehiago dute (Aspace...) eta
 pixkanaka ohitzen joaten da
 sendia. Buruezur entzefalo
 traumatismoa dutenen fami-
 liari asko kostatzen zaio
 gaintitzea, edo ez du gaintit-
 tzen. Beraz Goierrin honelako
 kasuren bat balego 882265
 telefonora deitu eta Milagatik
 galdetu lezake. Elkartean, la-
 guntza emateaz gain espe-
 rientziak trukatu dituzte.

Besteek esana

Autobia

Autobia hau (Leitzarangoa)
 agian ez zen inoiz eraikiko
 kontutan izan bagenu pros-
 pektiba, zeren soluziorik
 onena Lazkao bitarteko N-
 1a aprobetxatzea zatekeen
 eta hortik Lizarrausti bidez
 tunel bat egin Etxarri Ara-
 natzen sartzeko, bi txori hi-
 lez tiro batekin. Eta ez ge-
 nuen konprometituko
 hainbeste gipuzkoar aurre-
 kontuen etorkizuna.

**Juanjo Gabiña soziolo-
 goak "D.V."-n, 95-V-4.**

GFA eta euskara

Herrialderik euskaldunena
 omen den Gipuzkoan, are
 Gipuzkoako zonalderik
 euskaldunenetako batean
 (Goierrin), euskarazko (ai-
 torpenerako) inprimaki
 mixerable bat lortzeko
 euskaldun batek horrelako
 joan-etorriak egin behar
 baditu (Lazkao, Beasain eta
 Ordizia korritu), zer izango
 da besteetan? Gipuzkoako
 Foru Aldundia ez al dago
 behartua administratuari
 zerbitzu hobea eskaintzera?
 GFA ez al dago behartua,
 erdarazkoen parean, estan-
 ko guztietan euskarazkoa
 ere egon dadin bermatzera?

Dionisio Amundarainek
"Egunkaria"-n, 95-V-2.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eusebio Iziar ordiziarak 54 urte ditu eta kontable gisa gazterik hasiz gero, CAM eta Kutxarekin loturik egon da bere bizitza profesionala. Ikastolako eta Guraso Elkarteko lehendakari ohia, politikaria ere bada, baina bere lana eta lanez kanpoko ideiak bereizten badaki. Tolosan, Ordizian eta Lazkaon lan egin ondoren, berriro Ordiziako Kutxan da zuzendari gisa.

Goierriko kapitalidadea

Ordizia Goierriko kontestuan ikusten du Iziarren eta alde horretatik enpresei eskeintzen zaien zerbitzua geroz eta hobeagoa dela uste du. K. Nagusiko bulegoa ez da ordiziarrei bakarrik zuzendutakoa: asteazkeneko goierritar ugari hurbiltzen da bertako feriara, Zegamakotatik hasita Ikaztegiarainokoak, Ataun, Zaldibiakoak... eta asteazkenetan "kapitala" bihurtzen da. Nahiz eta inguruko zenbait herri txikitian bulegoak izan Kutxak, berauengana jotzen dute horietako askok eta askok, hainbat operazio hortik egiten da. Uste du

"elkartasunez eta ari-komunean egin behar dugula Goierri" eta ereduak baditugula: Goierri L. Eskola, Sasieta, Goieki, Udalak...

KUTXAren eskeintzak

* Ohizko eskeintza
guztiek gain, une
honetan bereziki

KUTXAren HIPOTEKA:

etxebizitza erosteko
modurik errazena.
* Errenta aitorpenaren
garaiari gaudenez,
Prebisioko Planak.

Gizarte ekintzak

Bere lanean klase guztietako jendearekin ditu harremanak, eta uste du "hori dela gauzarik aberatseenetakoa: enpresako gerente batekin eta azkeneko pioiarekin; bakoitzak du bere lana eta denak dira errespetagarri. Ez dugu dohan lan egiten, baina zenbaitetan aurrikusten ditugu aukerak jendeari laguntzeko. Denok dugu gure bihotza. Garbi dago: banketxeek euren akzionistak dauzkate. Kutxaren akzionistak, gutxi-asko, gipuzkoar guztiok gara, aldiz. Gure




irabaziak Gipuzkoara bihurtzen dira". Entitate horren irabazietatik zati handi bat gizarte ekintzarako doala azpimarratzen digu.

Ordizian "milioiak" partitzen dituzte. Euskal Jaietan ematen diren sari guztiak, trofeoak eta diruak beren babespean daude (gaztak, fruituak, barazkiak, oiloak...). Barrera Kultur Etxean egiten diren erakusketen publizitatea; herrian garatzen diren ekintza kultural piloa (kontzertuak, antzerkia, kirolak --Gabonetako igeriketa proba, saskibaloia, eskubaloia, pilota eta polikiroldegiko markadoreak, mendizaleak, eskolarteko olinpiaden dominak...--, e.a. Besteak beste, Onkologikoak emakumeei eskeintzen dien zerbitzu ikusgarria

aipatzen digu.

Bulegoak ez dituzten herrietatik ere jasotzen dituzte eskeak (Itsasondo, Gaintza...). "Bai eta gus-tora eman ere. Honuntza datozen herri txikitako horiek badakite gure ateak irekita daudela eta bertan daramatzadan 36 urteetan, halako ekintzentzat inori ezezkorik ematen sekulan ez dut aditu".

Bestalde, bulego honek bi bereizgarri ditu: goran duen bileretarako Kultur Aretoa (eskatzen duen edonori uzten zaio, baldin eta tartean dirurik ez badago) eta Ordiziarrekin loturik dauden bi pintoreen (Nikolas Lekuona eta Irene Laffite) arte-lan originalak dituztela agerian. Ordizia eta Kutxaren harremanak on eta eskergarritzat dauzka Eusebiok.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:.....	094
Errepideen egoera:.....	288888
Ertzaintza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):.....	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa.:	458005
HIES-SIDAr buruzko Inf.:.....	282666
Alkoholiko Anonimoak:.....	276618
Goierrri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612



Errezeta



Xabier Bereziartua eta Manolo Perezek emana
Lazkaoko makailau lehiaketako irabazleak

MAKAILAUA TOMATEAREKIN

Osagaiak: makailaua, tipula bat, 3 edo 4 batxuri buru, pipar berde pixkabat, pipar txorizero pare bat, tomate ondo egina eta pikilo piparra.

Makailauak, 48 ordu behar ditu gutxienez uretan

ondo gezatzen.

Tipula ondo goxatzea garrantzitsua da. Ondo eginda dagoenean piparrak gehitzen zaizkio eta geroxeago makailaua. Kazuela geldigeldi astintzen da gelatina atera arte. Ondoren tomatea gainetik bota eta pixkabat egiten uzten da.



Bota bertsoa



Alaitz Alustiza
Gaia: baserri giroa
Doinua: "Guardia Zibilak hau dio"

Baserri eta mahasti udan belarretan beti eta orduan jasotakoak asketara jaurti txekorra dagonean ezti ibili ezean azti ikuiluetan merkea eta harategian garesti.

Agraria eta kristo egingo gaituzte ito ez dakit nundik asma daiteken horrenbeste mito tonto lanai egin planto lege jartzaileei alto eskatzen dugu errespetoa ta hortik aurrera kito.

ETXEBIZITZA ETA LUR-SAILAK SALGAI IDIAZABALEN

1.- 650 m²ko **partzela**, etxebizitza bat edo bi eraikitzeke aukerarekin, Goatse inguruan.

2.- **Txalet** bifamiliarrak, guztira 250 m²ko partzelarekin. 180 m² 3 solairuetan eraikiak.

3.- **Apartamentuak**, 55 eta 60 m²koak, Zelaako auzoan.

Guardi Poligonoan **partzela industrialak** salgai: 18.000 pzta. m²ko.

Ezolatza Poligonoan, N-1 aren ondoan, **partzela industrialak** salgai: 22.000 pzta. m²ko.

Informazioa Idiazabalgo Udaletxean. Tfnoa.: 18 71 00

Salerosketak

□Akordeoi bat saltzen da "Pigini" markakoa, 120 bajukoa eta "Master de Lujo" markakoa. Oso egoera onean. 80 01 93.

□Ford Fiesta, diesela, (SS-Z) saltzen da. 88 86 28.

Lana

□Administrari batek bere zerbitzuak eskeintzen ditu, esperientziaduna. 888795, gaez deitu.

□Historialari bat eskaintzen da genealogia egiteko. 883072 (Arkaitz, iluntzeko 8etatik aurrera).

□Administrari euskaldun bat edozein lanetarako prest. 801896.

□20 urteko neska prest dago haurrak zaindu eta sukaldean lana egiteko. 885422.

Etxebizitzak

□Beasainen pisua salgai, Porterian, egutera. 3 logela, egongela, bainu 1 eta sukalde. Dei 160007 (Arantxa Gorostidi)

□Beasaingo Arana kalean atikoa dago salgai. Guztiz berritua, 2 logela, sukalde, sala eta komuna. 4.000.000. Telefonoa: 160406.

ANTZERKIA

✓ Legorreta:

Maiatzak 12, Bederen 1 antzerki taldearen 'Errenta' antzeslana, Pilotalekuan, 22.00etan.

BERTSOAK

✓ Lazkao:

Maiatzak 16, Igor Egueren eta Mikel Aranburu, Miazpidetako jangelan, 21.00etan.

✓ Legorreta:

Maiatzak 20, A. Egaña, X. Euzkitze, X. Zeberio, A.M. Peñagarikano, J. Agirre eta M. Telleria, Herri Zineman, 22.30etan. Gai jartzailea: Jose Mari Agirre 'Txato'.

✓ Ordizia:

Maiatzak 17, 'Bertsolamintza' Barrenan, 19.30etan. Partaideak, Xabier Amuriza, Pello Esnal, Andoni Egaña, Joxerra Garzia eta Jon Sarasua.

MUSIKA

✓ Beasain:

Maiatzak 12, Javier Bustoren abesbatzaren kontzertua 20.30etan, Andra Mari Zerutuaren Parrokian.

✓ Ordizia:

Maiatzak 13, 'Yerri Jazz Band' taldearen kontzertua, 'Poltsikozko Ikuskizunak' kanpainaren barruan, Barrenan, 22.30etan.

BESTELAKOAK

✓ Lazkao:

Maiatzak 24, ipuin kontaketa Intxixu taldearen (Joxe Mari Karrere, Mikel Markez eta Alaitz Telletxea) eskutik, Maizpiden, 21.00etan.

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 12, "La Reina Margot", 7,30-10,15.

Larunbata 13, "La Reina Margot", 7,30-10,15.

Igandea 14, "Causa justa", 7,30-10,15.

Astelehena 15, "Causa justa", 7,30-10,15.

Igandea 21, "Pret a Porter", 7,30-10,15.

Astelehena 22, "Pret a Porter", 7,30-10,15.

Zine Kluba:

Maiatzak 18, 'Braindead' Usurbe Antzokian, 20.50etan.

✓ Ordizia:

Ostirala 12, "Leyendas de pasion", 10,15.

'Braindead'

Peter Jackson (Zelanda Berria, 1992)

Jende askok, zinearen historiaz zehar inoiz egin den filmarik odoltsuenatzat hartu arren, 'Braindead', amerikar zine komiko-mutuaren kutsu handia duen komedia barregarri bat ere bada. Honen lekuko, Buster Keatonen lanak, Peter Jacksonengan sortzen duen lilura.

Filma honek, bere oinarrian, Lionel, guztiz babestzailea den amaren erruz, itota bizi den 25 urteko gaztea, eta ondoko dendako neska, espainiar emigrante batzuren alaba den Pakitaren arteko amodiozko istorio garden eta xamur bat aurkezten digu.

Sumatrako arratoi-tximu baten haginkadak ordean, beraien lagunak, ama, apaiz karateka bitxi bat eta umetxo dibertigarri bat ere, zonbiak bihurtuko dituen birus bat sortuko du beraien inguruan. Guztia goseak daude eta giza haragia dute gogokoen.

Larunbata 13, "Forrest Gump", 7,30-10,15

Igandea 14, Startrek, 4,45; "Leyendas de pasion" 7,30-10,15.

Astelehena 15, "Leyendas de pasion", 7,30.

Ostirala 19, "Cadena perpetua", 10,15.

Larunbata 20, "Cadena perpetua", 7,30-10,15.

Igandea 20, "El tesoro de Curly", 4,45; "Cadena perpetua", 7,30-10,15.

Astelehena 22, "Cadena perpetua", 7,30.

Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak, Liburuskak, Packaging, Buzoiaketak, Txartelak, ...e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak, Jailetako Zapiak, Boligrafoak, Pins, Piskailuak, ...e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta Enpresak, Seinaleztapena, Argizkoak eta Neonezkoak.

ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61



HITZALDIAK

✓ Beasain:

Maiatzak 12, alkate-gaiekin mahai-ingurua 'Ai geala'k antolaturik, Udal Liburutegian, 20.00etan.

Maiatzak 12, Euskal Herriaren desmilitarizazio eta ejerzioten abolizioa kanpainaren barruan, mahai-ingurua Udaletxeko Pleno aretoan, 19.00etan.

✓ Ordizia:

Maiatzak 16, aderdi politikoekin mahai-ingurua Barrenan, 19.30etan, desmilitarizazio eta ejerzitoen abolizioaren kanpainaren barruan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Maiatzaren 14ra bitartean, Luis Cisnerosen erakusketa Usurbe Antzokian.

Maiatzaren 19ra bitartean, Juan Narbarteren erakusketa Aterpe Tabernan.

Maiatzaren 20tik ekainaren 9ra, Irene Laffitteren erakusketa Aterpen.

✓ Ordizia:

Maiatzaren 13tik 26ra, Gonzalo Romanen pintura erakusketa Barrenan.

ZALDIBIA: IZTUETAREN OMENALDI EGUNA

Maiatzak 21: Goizean Iturengo Ttuntturroak. 9.30etan txalapartariak Zaldibiko bi puntetan, Miranda eta Ibarguren. 9.40etatik 10.30etara, trikitilarien saioa kaleetan zehar. Hauekin batera, Goierriko bertsolariek koplak kantatuko dituzte. 10.30etan, txalaparta saioa. 10.45etan Komitibaren irteera Iztuetaren etxetik. 11etan Meza Nagusia. Ondoren, Iztuetaren omenez Ugartek eginiko eskulturaren azalpena, herriko korua eta Goizaldi Dantza Taldea izango dira. 5.30etan trikitixarekin kalejira. 6.00etan herriko dantzarien saioa. Hiru generazioetako dantzariak parte hartuko dute. Ondoren, Zapotxin taldearekin erromeria.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Maiatzak 14, kanpaldia.

Maiatzak 21, Euskadiko haurren ibilaldi neurtua (Ordizian).

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 14, Zalduendo- Aitzuri-Aranzazu.

Maiatzak 21, Euskadiko haurren ibilaldi neurtua (Ordizian).

Pausogaizto Goierriko mendizaleak:

Maiatzak 13, Artazulgo arroilara.

Maiatzak 20, Ormazaretako kobara.

Idiazabalgo mendizaleak:

Maiatzak 14, mendizaleen festa.

Maiatzak 21, Gorbeia mendi-irteera.

GOARDIAKO BOTIKAK

Maiatza 11, Larnaga; *12*: Cuesta; *13-14*: Azpilikueta; *15*: Arriola; *16*: Atozrasagasti; *17*: Azpilikueta; *18*: Jauregi; *20- 21-22*: Larnaga; *23*: Cuesta; *24*: Urbizu; *25*: Urbizu.

Ziza ugari

Zizen garaia heldu denik ezin ukatu. 100 kilotik gora ziza bildu ziren Nafarroa aldetik, eta kiloa 4.000 pezetan saldu zen. Arkumea oraindik ere ugari dago, 90 buru azaldu ziren (500-530). Landareak, garaiak agintzen duenez, denetarik dago.

Bertako produktuei dagokienean, patata berria (160 pzta.) eta erremolatxa (100 pzta. sorta) azaldu ziren. Azalorak berriz, desgertu egin dira. Gainontzean, letxugak 50-60an, ilarrak 400-500ean, babak 150-200ean saldu ziren.

Kanpokoetan, muxika eta nektarinak azaldu ziren joan zen astean (400-500). Aberrixiak (300-400), gereziak (450- 1.000), piper berdeak (200) eta piper gorriak (250-300) behera egin dute. Alkatxofak (275), tomateak (250-275), udareak (200-250) eta lekak (350-400) berriz, gora.

Arrainetan, bertako antxoak freskoak izan ziren nagusi (550 pzta.). Itsasoilarra 1.120 pezetan, txitxarroa 820an, sardinak 520an eta bakailaua 1.200ean.

Ana Irastorza



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



Tfona: 885500 ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea eta mekanika
Volkswagen taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA


SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartzeta Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen denda, Arrondon.

Segurako Erosle eta **Idiazabalgo** Alda-nondon.



II. IGARTZA ABENTURA ETA MISTERIOZKO NOBELA

SARIA antolatu dute Beasaingo Udalak, CAF eta Elkarrek. Edonork har dezake parte. Jatorriz euskaraz idatziak, inoiz ez argitaratuak eta beste inolako sariketatan saritu ga-beak izango dira. Idazlanen ardatza, abentura edo misteriozko kontakizuna izan beharko da. Partaide bakoitzak nahi adina idazlan aurkez ditzake. Lanek gutxienez 50 folio izango dituzte. Lan bakoitzetik 3 kopia aurkeztuko dira eta horiekin batera gutunazal itxia. Idazlanak irailaren 15eteko 13etarako aur-

keztu beharko dira Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan (Loinazko San Martin plaza, z/g). Saria bakarra izango da, 500.000 pezetakoa. Horretaz gain, Elkar argitaletxeak saritutako lana argitaratuko du.

JOSTAILU, KARTEL ETA ARGAZKI LEHIAKETA antolatu du Sasieta Mankomunitateak, Goierriko ikasleek inguruneari zor dioten begirunea eta berau hobetzeko duten erantzukizuna indartu asmoz.

● **Jostailu lehiaketa:** Goierriko ikastetxeetako OHoko 5. eta 6. mailako ikasleek har dezakete parte, taldeka. Gaia: 'zaborra eta berziklaketa'. Jostailuak, zaborren artean aurki ohi ditugun materialekin egindakoak izan beharko dute nahitanahiez. Sariak: oroigarritzko plaka, eta Urbasara egun osorako irteera.

● **Kartel lehiaketa:** Goierriko ikastetxeetako

OHoko 7. eta 8. mailako ikasleek, har dezakete parte, taldeka. Gaia: 'Zaborra eta berziklaketa'. Sariak: Oroigarritzko plaka eta Urbasara egun osorako irteera.

● **Argazki lehiaketa:** Goierriko ikastetxeetako ertainetako ikasleek har dezakete parte. Partaide bakoitzak gehienez, 3 argazki aurkeztu ahal izan ditu. Sariak: oroigarritzko plaka eta liburu eta bideo bildumak.

Lanak maiatzaren 11, 12 eta 15ean aurkeztu beharko dira goizeko 7.15etatik 15.00etara, Sasieta egoitzan (Martina Maiz, 3. behe). Sari banaketa maiatzaren 23an egingo da.

IKERKETA HISTORIKORAKO DIRULAGUNTZAK. Zumalakarregi Museoak Euskal Herriari buruzko ikerketa historikoa bultzatzen jarraitzeko, ikerlanak sustatzeko laguntza ekonomikoa eskaintzen du 5. urtez.

Oinarriak: Zaletu, ikasle eta espezialista orok har dezake parte. Lan eremua, geografia aldetik Euskal Herria eta kronologi aldetik 1789-1841, gai aurkera egileen esku geratzen da. Lan proiektuak lau elementuz osaturik aurkeztu behar dira: izenburua, artxiboetan burutu beharreko ikerketan egitasmoa, oinarritzko biografia, eta proiektuak planteiatu dugun histori-gunekiko duen lotura adieraztea. Proiektuak maiatzaren 20a baino lehenago aurkeztu beharko dira Zumalakarregi Museoan (Iriarte-Erdikoa, Ormaiztegi). Laguntza 280.000 pezetakoa izango da. Lanak 80-100 orrialdeko luzera izan beharko du eta mekanografiaturik aurkeztuko da abenduaren 12rako. Informazio gehiago, 88 99 00 telefonon duzue.

Giro fator eta atsegina



BASAKANA
ITURRIOZ 11
BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

Inprimategia



EGUZZI
Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN



MAIZPIDE
euskaltegia

88 92 31 / 32

LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaleko ikastaroa: 3-21
- Abuztuko ikastaroa: 1-25
- Iraileko ikastaroa: 4-29

Matrikula: maiatzaren 9tik aurrera
HABE-ren dirulaguntzaz

Udaletxeko politikoen alde

Tonto samarra, edo erabatekoa ere, naizela pentsatuko du batek baino gehiagok seguruenik, baina ezin dut bota gabe utzi. Nik ere entzun ditut Roldanek, Conderenak... agertu ez diren, eta ezta agertuko ere, hainbat lapurreta. Egia biribila guztiak, seguru nago.

Neure begiz ikusi dut, ordea, herriko alkatea plaza garbitzen eta badakit ez dela izan hamabost botu gehiago ateratzeko; badakit kontzejalek neka-neka eginda eta kokoteraino dabiltzala diotenean, ez direla ari gezurra gogoko dutelako. Parlamentuan hika-mikan haserre itxura egitea ez bezalakoa da, gero, herriko algoazilak zer moduz lan egiten duen eztabaidatzen aritu beharra edo etxekoarenekoari bal-koia hamar zentimetro haundit-ko baimenik ez ematea; ernegatuta bizitzeko modu ederra, alegia. «Ondo etorriak kontzejal-alkateei botatako kritika guztiak; neu aurre-na, gainera. Baina ni behintzat, pronto nago gure udal politikoon borondateagatik burdina gorria eskuetan hartzeko. Lotsa gabe, ezer ez dutela egiten uste duten asko-rengatik baino lehenago, dudarik ez egin.

✍ Antonio Berasategi

Zer eskatzen diozu hurrengo Alkateari?



Itsaso eta Aloña
18 urte, ikasleak
zaldibitarrek

Gaztetxe bat lortu nahi dugu, San Juanetatik edo horretan ari gara. Guk lokal handi bat eskatzen dugu, baina Udalak beste txikiago bat eskaintzen digu.



Iñaki Arruabarrena
49 urte, langilea
ataundar Lazkaoratua

Euskaldunak paktoa egitea. Bada garaia na-zionalistak bat egiteko, hori da onarria. Enpa-rantza berritzeak lehen-tasuna du, baita indus-trialdea martxan jarri eta langabeziak ere.



Iker Aierbe
23 urte, musikoa
ordiziarra

Kulturarentzat diru gehiago eman dezala. Baita merezi duten kiro-lentzat, adibidez aleta-dun igeriketa eta Rugby zelaia.. eta ez futbola-rentzat bakarrik.

Bitxikeriak

Joxemiel Barandiaranek jasoa

Bere Hiztegi Mitologikotik hartua da. Zenbait ipuinetan Tartaloetxe herrikoiean kokatzen da, heroiori eskatzen zaizkion **hiru** lanen gaia. Ipuin ezagunaren Zegamako esateko era Zubietako Jose Mari Aseginolazari jaso zion 1957an: "Tartaloetxen bizi ementzan Tartalon erregea. Alaba bat ementzeukan eta alaba orrek aixkide eñ ementzon. Aittek esan ementzion ordea, bera baño iru gauzatan indartsugoa zan sia bear zola. Aren aixkidea ainbeste bazala ementzion alabak, eta **iru** gauzak aukera zezikela. **Lehenbiziko** lana, pago bat eskuz nork ataako, ementzan. (...) **Bigarren** lana, palankan zeñek geiago eñ. (...) **Irugarren** lana, zeñek urrutigo arrie bota. Erregek oso urruti ari bat bota ementzon. Sui-gaiek kolkotik zozo bat ataata, bea bialdu ementzon. Zozoa Arakama aldean izkutau ementzan. Urdun, erregek bee alabaai gizon arekin ezkontzeko baimena eman ementzion".



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Tfnoa: 880543 BEASAIN



Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN



GOITGI
OKINDEGI
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ♦ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



Xabier Gartzia
(Beasaindar irakasle
eta idazlea)

**“Euskararen
aldeko
diskriminazio
positiboaz
hitzein
beharra
daukagu bai,
euskal harriak
bizi gaitzan”**

Gure herrian elkarbizi diren hizkuntzen arteko auzia zertan den jakiteko, “Hizkuntz borroka Euskal Herrian” (Euskaltzaindiak argitara emana, 1979an) bezalako liburuak irakurtzera emanagoa nauzue telebistan, ETB 2ko apirilaren 8an, eman ziguten ¿Están discriminados los vascos que no saben euskera? bezalako programak segitzera baino. Aipatu liburuak badiu gure hizkuntzarekiko azterketa eta diagnostiko sakonik eta, joandako denboren hautsa kendu eta orraztu egin behar zaion arren, probetxagarria gerta dakiguke oraindik. ETB 2ko programa, aldiz, etxekalte gertatu ez ote zitzaigun nago, harrotzea komeni ez diren hautsak tentu handirik gabe harrotu zituelako.

Programako galdera ez zen aseptikoa izan, karga ideologiko arriskutsuaz hornitua baizik. Pentsa, bestela, zenbat bazter ez zatekeen aztoratuko galdera beste honetara egin balute: ¿Están discriminados los vascos que saben euskera? Baina, galderaz aparte, beren buruak diskriminaturik sentitzen zituzten haiek ere ez ziren, nire ustez behintzat, sano-sano horietakoak. Inkestek, behinik behin, herri honen gehiengoak euskalduntze-prozesua begi onez ikusten duela diote, eta ustezko diskriminatu haiek parte txarreko begirada besterik ez ziguten eskaini.

Gaur egun euskara ezin da galerazi Francoren diktaduraren garaiko metodo basatiak erabiliz, baina, hala ere, lehengo lepotik burua dutenak “el vasculence es una auténtica joya de la cultura hispánica” esan eta euskara sekula ikasteko asmorik ez dutela jarriko zaizkigu kontrakarrean. Programa hartan hitz horiek esan zituen ez zen aza barreneko orria noski, berehalaxe hasi baitzen giro koxkeroan tiroak jaurtikiz: bere hitzetan, euskararen “aggiornamento”a lortzeko, euskara batua gure hizkuntza prostituitzen ari da,

Euskal Harriak bizi gaitzan

minutuero ehundaka neologismo asmatzen ditugula. Hori guztia daki hark, nolaz eta gure hizkuntza jakin gabe! Gure harribitxi paregabea (ala “auténtica joya” esan behar al dugu, ba?) laudatzen zuen itxurak eginez, iraindu eta irendu nahi izan zituen euskaldunon jarrerak. Gizaseme adeitsu plantako hark ez du gure euskal harribitxia bere egin nahi. Ezpainetara eraman baino lehen harribitxia kixkaldutako harri bihurtzen bide zaie halakoei, eta mingaina ezezik erraiak ere erretzen bide dizkie. Erne egon beharra daukagu, beraz, “auténtica joya”ka hasten zaizkigunekin.

Ertzaintza ere gure harriak erresuminduta omen dago, programan azaldu zen ertzainaren esanei kasu egingo badiegu behinik behin. Bere ustez ez da ez zuzen eta ez bidezkoa euskarazko azterketak ez gainditzeagatik ertzain-lana ezin lortzea. Azala sobera zuen hark, prest baitzegoen onartzeko honelatsuko burubidea: beste ikasgaiak ez gainditzeagatik ertzainak lanposturik gabe gelditzen badira konforme, baina ezin jarriko dugu euskara beste ikasgaien parean. Ahazten zitzaion, ordea, xehetasun ñimiño hau: ertzainok herritarren zerbitzurako egon behar dute, herritik jasotzen baitute soldata, eta soldata ematen diegun euskaldunok euskaraz zerbitza gaitzaten eskatzeko eskubide osoa dugu.

Bi filosofo ere bazeuden han, nor baino nor pentsamendu sakon eta bihurriagokoak. Bata harritxintxarrak zapaten barruan edukiz etengabe ibili behar duena bezain gozo zegoen, zeren eta euskaldunok, bere esanetara, gizarte elebakar baten atzetik gabiltza, hots, eus-

kara (Euskal Harria) besterik ez omen dugu nahi eta horrek, antza, ez dio onik egiten. Besteak ere harri-mina zuen, ez baitzuen ulertzen euskaldunon seta itsua Unibertsitatean, karrerak euskaraz egiteko aukerak alferrik hedatzenagotzen ari omen dira eta. Minduta entzun nituen haien adierazpenak, biak ere harritzko bihotzekoak iruditu baitzitzaizkidan.

Harri eta zur gelditu nintzen, berriz, harako soziolinguista entzutean. Ez al zuen ba esan guztiz traumatikoa izan daitekeela ama erdaldunen seme-alabentzat euskara hutsezko ereduak eskolatuak izatea? Traumatizaturik al daude, agian, joan deneko hamarkadetan ikastoletatik irten diren ama erdaldunen seme-alabak? Trauma horrek jota al daude, apika, erdara hutsez eskolatuak izan ziren gure garaiko euskaldunak?

Ez du merezi programa hartan euskaldunoi harrika egin ziguten erasotzaile guztiak aipatzerik. Nik, jende ilustratu hori entzunda (entzungor egin banie, sikiera!), benetako diskriminatu batzuk nituen gogoan: ezagutzen ditut erdaraz tutik ere jakin ez eta, beren adimen-kozientea neurtzeko, erdarazko testak egin dizkieten adimen urriko haur euskaldunak; ezagutzen ditut erdaraz ez jakiteagatik hainbat kliniketan gorriak sufritutako haur euskaldunak; ezagutzen ditut... Luzeegi joko lidake zerrendak, tamalez.

Euskaldunok ez dugu nahi inork gure harrian behaztopa egin dezan, ez dugu, harria dela medio, inor baztertu nahi. Aitzitik, denek gure harria maita dezaten nahi dugu, guk besteen harriak maitatzen ditugun bezalaxe. Baina, benetako maitasuna gauzatuko bada, gaixo eta ahularen aldeko diskriminazio positiboaz hitzein beharra dago hemen. Euskararen aldeko diskriminazio positiboaz hitzein beharra daukagu bai, euskal harriak bizi gaitzan.

Segurako aterpetxea: gero eta ezagunagoa

Segurarren artean beti "koloniak" ize-
nez ezagutu izan da,
1930ean udalekuta-
rako eraikia izan baitzen.

Gerra garaian presonde-
gia ere izana da. Beren
famihiakoek janaria era-
maten zietela eta meza-
tara ere esposatuta era-
maten zituztela hogetaka
herriar abertzale bertan
eduki zituzten preso, hu-
rrango egunetan hilko zi-
tuztenaren mehatxupear.
1946an berriitu eta
1952an Madrilgo tran-
sferentzi batzuk medio,
Diputazioko Osasun eta
Gizarte Zerbitzuko adingabekoen inter-
nadu bezala hasieran, eta internadu be-
zala bakarrik azken urteetan.

Baina Diputazioak aspalditxotik
zuen ume hauek, integratziarako aukera
gehiago ematen duten zentro irekia-
goetara eramateko asmoa, Intxaurron-
dora hain zuzen.

Etxea libre gelditzean, Gazte eta
Kirol Departamentuak interesgarria
ikusi zuen bere 4. aterpetxea irekitzea,
batez ere, azpiegitura, kokagune eta
Segura inguruak eskaintzen zituen
aukeren aldetik. Herrian zenbait zu-
rrumuru zabaldu baziren ere, bertako
zuzendariak esan digunez, ez zen beste
aukerarik aurrikusi.

Aterpetxearen eskaintza

15-30 urte bitarteko herrialdeko gaz-
teei zuzendua dagoenez, hauek prezio
bereziak dituzte. Hala ere, edonor eta
edonondik etor daiteke bertara. Hori



*"Aingeru Guarda" aterpetxeak kostaldeko Hondarriria, Orio eta Zarauzkoen al-
dean posibilitate ezberdinak eskaintzen ditu. Udalerrian bertan kokatua dago, he-
rritik 200 metrora Zegama aldera.*

bai, momentuz gutxienezko 12ko tal-
detan. Eskaera txikiago asko dagoela
eta, kopuruarena birplanteatu nahian
dabilta. Talde hauek gehienez 15 egun
pasa ditzakete, eta erreserbak urte ba-
rruan eta deitu ahala egiten dira. Aurten
irailean itxita egongo bada ere, aste
nahiz asteburu, urte osoan egoten da
zabalik.

Bertan, sukaldeaz eta garbiketaz 2
segurar eta 2 beasaindar arduratzen di-
ra, mantenimenduaz segurar bat, eta
zuzendari lanetan Xanti Moriones
errenteriarra aritzen da. Hauez gain,
goarda bat ere egon izan da gauetan.

Gainerako hiru aterpetxeekin kon-
paratuz txikia bada ere, 2 oheko geletan
banatutako 60 plaza, tamainu ezberdi-
netako 4 bilera gela, telebista eta bideo
gelak, joku eta liburutegi gela, frontoi
estalia, futboleko nahiz saskibaloian
aritzeko lekuak, haurrentzako jokuak
dituen lorategia, eta 25 mendiko bizi-

kleta eskaintzen ditu
besteak beste. Xantik
dioenez, barrukoez gain,
inguruak eskaintzen
duena dago: Aizkorri,
Aralar eta hauen ingu-
rueko mendi eta ibilbi-
deak, Segura eta Zerain
bertan ditu eta Goierrik
eskaintzen dituen aukera
ugariak, ere bai.

Orain artekoa

Instalazio eta kokagune
aldetik ezin dela askoz
gehiago eskatu esan digu
Xantik. Aterpetxeetan
ezezagunena izan arren,

gero eta jende gehiago dator. 1994an
6.000 egonalditara iritsi zen, eta 1.500
pertsonek pasa ziren bertatik. Jendeari
dagokionez, talde mota ezberdinak
etorri izan dira: ikastetxeak, euskalte-
giak, aisialdiko taldeak, ezindu fisi-
koak eta abar. Normalean gazteak eta
euskaldunak, eta asko bizkaitarrak.
Kultura ezberdinetakoak ere bai, txina-
tarrak, errusiarak... Gainera, lekuak
eta inguruak erakarrira jende askok
errepikatu izan du.

Zuzendaritzaren helburu nagusieta-
ko bat, aterpetxea herriari irekia egotea
eta bertan integratzea da, eta hona da-
tozeneri Segura eta bere ingurua ezagu-
taratzea.

Informazio gehiagorako edo erre-
serbak egiteko haxe duzue helbidea:
Segurako Aterpetxea, Segura-Zegama
errepidea, Segura. 801010 telefonoa.

 Joseba Telleria

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**
Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN

Lirain
Lurrindegia eta Opari Gaiak
San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

Ba al dakizu...?



ETXEGARATEN N-1A

bikoiztearen aldeko plataforma eratu da. Tolosaldea, Goierri, Sakana eta Arabako Lautadako 82 alkate eta zinegotzi bildu ziren maiatzaren 4ean Etxegaraten, obren atzeratzeagatik protestatuz eta aurrikusitako datak bete daitezela eskatuz. Besteak beste, han ziren hurrengo alkate eta kargudunak: Joakin Mujika (Arama), Mikel Arratibel (Ataun), Maite Amundarain (Itsasondo), Antton Irizar (Idiazabal), Eduardo Laborde (Billabona), Anjel Estensoro (Olaberria), Jose Lekuona (Mutiloa), Jose Inazio Iturrioz (Legorreta), Iñaki Berasategi (Zerain), Migel Mari Irastorza (Zaldibia), Inazio Estensoro (Lazkao), Jose Luis Arriola (Beasain), Juanbi Erauskin (Ordizia),

Juan Karlos Leturia (Ormaiztegi), Karmen-txu Etxeberria (Segura), Jesus Mari Larrea (Zegama), Jose Gurrutxaga (Tolosa), Jose Manuel Goikotxea (Altsasu) eta Manuel Ijurre (Sakanako Man-komunitateko presidente).

Haseran 92rako egon behar zuen bikoiztua

N-1 errepidea. Errepide Plan Berrian, ordea, 1993-2004 tarterako atzeratu ziren lanak, Maltzaga Urbina autopistaren mesedetan. Inguruko herriak konforme ez eta hamaika alegazio aurkeztu zioten plan horri; horiek kontutan hartu eta N-1aren bikoizketa lanen hasiera 95rako aurrikusi zuen Administrazioak, bukaera, berriz, 99rako. Lanak ez dira hasi oraindik eta ez da inolako dirurik aurrikusi errepide hone-tako 24 km.-tarako. Inguruko herrietan kezka sortu da, beraz. "Paris eta Cadiz artean Etxegarate da bikoiztu gabeko zati bakarra", dio herrietako ordezkari-ek onartutako dokumentuak. Askoz trafikiko gutxiago duten errepideetan lan erraldoiak egin dira, diotenez. Goiekiko gerentea den Inazio Estensororen hitzetan, "Guztiok dakigu

Administrazioak baliabide gutxi di-tuela eta horren ondorioz zenbait lanek lehentasunezko tratua jasotzen dutela. Hala ere, guk bailararen interesa de-fenditu behar dugu".

UDAL HAUTESKUN-DEAK BERTAN

ditugula eta zenbait alkategaien berri eman genizuen aurrekoan. Beste zenbaiten berri ere izan dugu. **Zegaman**, Asun Mendizabal da EAren zerrendaburua eta Joxe Ramon Agirre HBrena. **Legorretan**, EAJtik Joxe Iturrioz dihoa eta Jose Luis Urretabizkaia HBtik. **Ormaiztegin** Jon Mikel Murua da EAKo alkate-hautagaia. **Olaberrian** Enrique Lorenzo da PSE-EEren hautagaia. **Ezkio-Itsason** Maria Isabel Olanga da Ezkio Itsasoko Herri Kideak-eko hautagaia eta Simon Idia-kez HBkoa. **Itsasondon** Joxe Mari Otegi (HB) bakarrik aurkeztu da. Hainbatek errepikatzen badute ere, "aurpegi berri" ugari ikus daiteke alderdi ezberdinen zerrendetan.

UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLAren

proiektuak indar berria hartu du. Eusko Jaur-larritza eta Urola Garaiaren hitzarmena sinatu zen martxoan. Zumarragako San Jose Ikastetxea 350 milioiren truke eroste, Legazpi Eskolak ordezkatzeara



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

eta operazioaren egokitze kostu ekonomikoak bereganatzea, e.a. onartu zuten Legazpi, Ezkio-Itsaso, Zumarraga eta Urretxuko zinegotziek. Proiektua martxan jartzeko 685 milioi ziren beharrezkoak eta Mankomunitateak 375 milioiko mailegua eskatuko luke, Aldundiak 300 jarriko lituzke eta eskualdeko enpresariak 10 milioi bideratuko lituzkete; Europatik 193 milioi iritsi dira. Datorren urterako jarri nahi da martxan Lanbide Eskola hori.

ORDIZIAKO ALTAMIRA AUZOA, N-Iaren gaina eta poligono industrialaren ingurua hain zuzen, arratoien habi bihurtu dela azkenaldian eta sanidade arazoak daudela salatu du bertako auzo elkarteak. Beteranoenetakoa den auzo elkarte honek begirune gehiago eskatzen dio bertako Udalari. Udalak, ordea, malda horren garbiketa berari ez dagokiola esan omen die eta industriariak, berriz, lur-sailak ez direla beraienak. Bitartean, zabor poltsak botatzen segitzen da amildegi horretara eta inork ez du garbitzen. Altamirak 1.500 biztanle ditu eta arazoak soluziobide bat izango duen esperantzak agertu dituzte bertako biztanleek.

GAZTEMANIAK fantasia eta beldurrezko zinema maratoia burutu zen Ordiziako Herri Antzokian maiatzaren 6ean, arratsalde osoz.

GFak, Donostiako Kultur Patronatuak eta Ordiziako Udaleko Gazteri sailak antolatu zuten lankidetzan eta bertara gonbidatuak izan ziren Santiago Segura zinegilea eta Saturnino Garcia ("Justino, un asesino de la tercera edad" filmeko aktorea). 3 luzemetraia eta beste 3 laburmetraiei harrera ikaragarri ona egin zien bertan bildutako gazte-jendeak.

LEGORRETA. San Migel auzoan egin berria den kamioientzako aparkamendu berriak 10 milioietako kostua izan du. Herri honek zuen arazorik latzenetakoa zen horren falta, baina apiriletik aurrera hor daude 3.000 metro karratu horiek hutsune hori betetzeko lehengo kamino jeneralaren alboan. Aparkadero berria erabil dezatela eskatu die kamioizaleei orain Udalak.

GOIERRITARRAren berri eman behar oraingoan ere. 95ko aurrekontua eta eskari berria egin diegu "Goieki" eta Goierriko 19 udalei. Eske osoari uko egin ez badigute ere, baiezkorik ere ez da, iazkoa ematea litzateke zenbait karguen nahia, adierazi zaigunez, udal-kutxetan dirurik ez dela argudiatuz. Beste zenbait herri txiki eta ertainetan, aldiz, ez legoke eskatutakoa edo gehiago emateko problemarik. Kontutan izanik GOIERRITARRAK aurtengorako duen aurrekontuaren



igoera (16 milioi), "zuloz" beteriko bide besterik ez dugu aurrean. Instituzioen diru-laguntzak gehitzearen beharra ikusten dugu nahitaez, ezin da konparatu gainontzeko prentsa lokalarekin jasotzen duguna. Gure asmoak betetzeko, diru-iturri nagusia dugun publizitate eta enpresen laguntzez gain, instituzio eta udalen behar adinako laguntza da ezinbestekoa. Onartuko al zaio hori GOIERRITARRAri, ezen bestela gure zerbitzuari murrizketak egin beharrean aurkituko gara: kolo-rerik ez, tirada izoztea, harpidedun berrien itxaron-zerrenda, orri kopuruen jeitsiera... Ideia zabaltzen, aldizkaria hobetzen eta sendotzen, lagundu irakurle.

Kamixeta
oparituko da



Argi ikusten ez baduzu, zatoz MULTIOPTICASera. Zure eguzkitako betaurrekoak preziorik distiratsuenean graduatuko dizkizugu. Montura eta graduaturiko kristalak **9.800 pezetan**. Argi ikus dezazun. Eta beti MULTIOPTICASen garantiarekin, zure zerbitzura 450 baino optika gehiago dituen 1. mailako Zerbitzu Optikoa.

**9.800
PEZETAN**

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA
ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

BELAR ONDUA KARREATZEKO MODU BITXI ETA BURUTSU BAT:

“Ataungo Kableak”

Azken ia 70 urteetan Ataunen erabili den belar ondua etxeratzeko era berezi honen ikerketa duzu hau, mendi-maldetako belardietatik hasi eta baserrietara sartzeraino. Beharrak egin zuen azkarra baserriar ataundarra! Galtzear dagoen sistima delako (nahiz eta oraindik bakarren bat geratu) eta daukan interesagatik dakarkigu GOIERRITARRAren orrietara, udako kontuak nolabait aurreratuz.

Joxe Miel Barandiaran Fundazioak kaleratzen duen “Anuario de Eusko Folklore”n argitaratu eman zuen autoreak honako lan hau 1991ko 37. zenbakian. Pako Etxeberria (Donostiako osteopata ezaguna, Lasa eta Zabalen gorpuzkinak ikertu dituen, beasaindarra eta Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkaria) izan zuen akuilatzaile Jose-txo Zufiaurre etnografo beasaindarrak.

“Oso arrunta badirudi ere, uste genuen gaiak bazuela nahiko garrantzia; honako ikerketa labur hau eskeintzeko modukoa bai bahintzat. Bi arrazoi badi-ra: batetik, horren galera izango dela



Larratze baserria kablea hasten den lekutik. Aldamenean J. M. Barandiaran Eskola.


laister; bestetik, Ataungo baserrietan erabili dela masiboki, beste herriren batean beste kasuren bat izango bazen ere. San Martin auzotik Kaxetarainoko 6 km.ko bideak erakusten digu ezker-eskubitan dauden hainbat auzoko malden pendizea. Pendize hauetan mendetan zehar erein da garia, lurraren laboreko prozesuak eskuz, laiaz eta beste tresnaz egin direla eta maldan behera zetozen lur-belarrak saskitan igo izan dituztela.

Belarra ebaki eta uzta jasoz gero, belar fardokadak mando- gainetan jeisten zituzten bidetxur estu eta bihurrietatik. Era berean karreatzen zituzten ganbarretara udako hilabeteetan belar lehortuak, negu luzean ganaduak jatenak izan zitzen. Belar ebaketa lanak nekezak izan ohi dira, gehienbat uztaila eta abuztuan eguzki galdatan egin behar direlako. Baina etxeok 2-3 egunetan egindako lana galdu liteke euria hasi baino lehenago ez bada ondu eta jaszten. Mando-gaineko garraio hau arriskutsua zen eta sistima oso mantsoa, nahiz eta zama haundi eta dexentzeko tamainozko beaje mordo bat egin egunean zehar.

1924 urte inguruan izan zen, Larratze baserriko nagusia zen Manuel Auzmendiri okurritu zitzaion etxeaurrean zuen belaze aldapatsutik altzairuzko kable bat ipintzea, bere ganbaran sartzzen zena. Honen “kaida” 100 bat m.koa zen, 300 bat m.ko distantzian; dextekote pendizea zuen, beraz. Kablea tentsatzeko danborra ganbaran ipini zuten, injineritza lan hura baserriko habe printzipalari lotuz. Injenioa bere orokorrean (danborra, ardatzak, engranaia eta frenuaren pestilloa), egurrezkoa zen eta 40 bat urte iraun zituen, harik eta 60. ha-



Danborrak, modernoena burnizkoa.



Baserria eta mekanika



Fardoa txirrikatik doa aldapan behera eta pendize aldaketarako astoazpitik paseaz.



markadaren erdialdean desmontatu eta erre zuten arte, pipiak jo eta hondatu egin baitzen. Konjunto honi "Danborra" deitzen zitzaion.

Laister izan zituen jarraitzaileak Larrazteko etxejoaunak. Hasiera batean kable gehienak zuzen-zuzenean sartzen ziren baserrietako mandiotan, negu osorako belarrak bertara biltzea baitzen erosoena. Baina erosotasun horrek ondorio mikatzak izan zituen zenbait kasutan. Trumoi-garaian tximistak sartzen ziren kableetan eta laister ziren mandioetan, belarrak eta zenbait baserriker ere horrela su hartu zutela. Hori galarazteko, batzu-batzuk kablea luzatu eta teilatuaren bestaldetik ateraz bere puntari lur eman zioten. Beste batzuk etxeondoko terrenoetan jarri zituzten danborrak fardoak geroago igoz ganbarerara. Beste zenbait kasutan baserriaren aldamenen jarritako manposteriamatxoi batean eusten zen kablea eta horrek eragiten zuen belardi gainean jartzea danborra. Kasu askotan kaballetea

eta "Tranpalea" izeneko plataforma ezartzen ziren eta bertatik zintzilikatzen ziren fardoak kablean, beheraka bidaliz, lantzatzuz.


Beheko biltokian, kablea bukatu baino metro pare bat lehenago, txapazko enbutu-moduko bat darama erantsirik honek, polea (txirrika) kabletik atera eta belar-sorta ganbaran edo lurrean eror dadin. Enbutu-moduko honi "Dispara" deitzen zaio. Barilla trentzatukiko kableak erabiltzen ziren garai batean, baita orain ere. Baina eguraldi txarrak erre eta desegin egiten zituen. Orain dela urte batzutatik hona barilla galbanizatuak erabiltzen dira; gehiago irauten dute, honenbestez.

Oraindik ere 1.000 m. baino luzera handiagoko kableak ezarrita daude Ataunen, beren inklinazioa aldapa eta lur-sailen arabera 2 eta 3 aldiz aldatzen dela, etxeraino iritsi aurretik. Arazo horiek beste hainbat kaballeta ezarri gaitzen dira eta horien artean pasatzen dira fardoak. Kaballeta hauei "Astoa" edo "Kable

asto" deritzaie eta 3 adarrez osaturik daude: 2 lurrean iltzatuak 3 m.ko distantzian eta 3.a aipatutakoen gainean iltzatua buruko horizontal gisa. Buruko honen erdigunean burnizko gantxo bat zintzilikatzen da, punta gastaturik duela, kablea enkajatu eta soportatuz. "Aston pipak" deitzen zaie.

Beste arazo korapilatsuago bat zera zen: belardi eta baserri artean muinoren bat egoteak kableari jiro bat egitea behartzen zion. Prolema hauek asto bikoitzak ezarri gaitzen ziren, angeluan ezarrita eta pletina kurbatu bat eutsiz. Horri "Plantxuelea" esaten zitzaion. Egia esan, bi kable dira erabiltzen direnak halako ibilbidetan: bata, lantzaderatik asto-bikoitza arteraino eta, bestea, hortik baserriraino, bien arteko gurutzaketan kointzidituaraziz pletina kurbatua.

Sarritan gertatzen da baserria kamino-bazter batean dagoela eta belar-saila bestaldeko maldan. Errepide eta ibilgailuen gainetik dabilta fardoak, hortaz, Orain dela gutxi arte babes batzuk baziren, fardoa kabletik aterako balitz ere, bidera eror ez zedin. Metalezko sare handiak ziren, era horizontalean altura



Belar sorta ganbarara sartzen.

batean jarriak, errepideko alde bakoitzean jarritako 2 edo 3 hesolen gainean apoiatzen zirenak.

Azken 70 urte hauetan zehar, aipatutako tramankuluen antzeko 50 bat jarri dira Ataunen belarra kablen ekartzeko. Baina beste hainbat alorretan suertatzen den modura, aurrerapen mekanikoek desagertarazi ditu. Makina enfardadorak dira horren arduradun zuzenak, baina aurretik pistak egin ziren traktoreak gora igotzeko. Ia ez da apenas belarrik botatzen kabletik, makinariarekin ibiltzeko arriskutsuak diren zenbait belardietatik izan ezik".

Jon Mikel Aranok itzuli eta moldatua



Sariarte-garakoa baserrikoak belarra estu lotzen.



**Beasaindarrok:
Herri bizia eta bizigarria
egin nahi dugu
denon artean.**

Eman Botoa  **EAI
PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna



**Legorretako
etorkizunari ekinez.**

Eman Botoa  **EAI
PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna



**Segurako etorkizuna
hobetzeko eta garatzeko
lan egingo dugu.**

Eman Botoa  **EAI
PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna

Lazkaon "Tertuli Giroan" ikasitakoak

Otsailaren 22an "Ihauteriak eta Udaberriko Jaiak" hitzaldia eman zuten Emeterio Sorazu eta Joan Antonio Urbeltzek.

Hainbat jakingarri: Ihauteria lanari alde egiteko ospatzen da. Urte guztian normalean egiten ez dena egiteko garaia da, bazterrak hankaz gora jartzeko garaia... Zoritxar guztiak estali eta hutsik eta akatsik handienak menperatzen ditu ihauteriak. Dantza garrantzitsua da eta dantzan animaliak: hartza, azeria eta arranoa (soka-dantza, azeri-dantza...). Hartzak izarretara garamatza: "Hartz Handia", negua lotan pasa ondoren, garai honetan "esnatzen" da. Hartza eraldatu egiten da: gurdi bihurtzen da. Eta abuztuan, itzaia desagertzean, berriro hartza dakusagu ortzean.

Martxoaren 15ean "Euskal Herriaren Historiaurrea: Ikuspegi historikoa eta kulturala". Hizlariak, Emeterio Sorazu eta Joxean Mujika.

Jakingarriak: Historiaurrea aztertzeko modu desberdinak daude: hitza, idazlanak, argazkiak, bideoa, egintzak, ahoz ahoko informazioa... Azterketa horrek helburu desberdinak izan ditza-ke: lorpen materialak, pertsonaren bizikera eta barneko pentsakera ezagutzea, gure arbasoen seme-alaba eta, beraz, ondorio garela ikusi eta adieraztea... Eguraldiaren, klimaren, aldaketak zirela eta (elurteak, izozteak...), bizileku egoki bila batetik bestera mugitzen zen gizakia (nomadak). Tresneriaren gaia da gehien ezagutzen dena; gai espiritualena (erlijioa, ohiturak...) zailagoa izaki, ez dugu hain ezaguna. Lehengo gizakiaren irudia aldatu beharra dago: gauzak etzituen, askotan uste izan dugun bezala, kasualitatez eta pentsatu gabe egiten, baizik eta ondo pentsatu ondoren, arrazoituz. Klima hotza izan zenaren adierazgarriak badira: Amezketatik gora, Minatako zuloan glaziarra (500 m.-tatik gora urte guztian elurra zegoenaren seinale),



Troskaetako haitzuloan hartzen haztarnategia... Trikuarrien sorrera artzantzarekin lotuta dagoela pentsatzen da; ikusmira handiko toki garaietan aurkitzen dira gehienak. Garai batzuetan hildakoak bakarka lurperatzen bazituzten ere, beste batzutan taldekako lurperaketak egiten zituzten (150-200 hildako trikuarriko), haztarnategi desberdinetan aurkitu diren hezurak lekuko.

Martxoaren 29an "Erlea: filosofia, barneko funtzionamendua eta gaisotasunak", gaia zutela aritu ziren Jaxinto F. Setien eta Pello Joxe Aranburu.

Hainbat jakingarri: Erlategia familia handi baten etxea da eta etxe-ko denak ama beraren umeak. 40.000tik 70.000rako talde ierarkizatueta bizi dira, bakoitzak bere funtzio eta lan berezia duelarik. Erlategi bakoitzak erregina bakarra du eta bere zeregina erruttea da. Arrak, erlamandoak, gutxi izaten dira eta erregina ernaltzea da beraien zeregina. Ernaltze hori erreginaren bizitzan behin bakarrik gertatzen da, espermatozoideak sabelean pilatu eta bizitza guztian dosifikatzen baititu. Erle langileek erlategia garbitzen dute, larbei jaten ematen diete, argizarizko abaraskak egiten dituzte, elkarte- zaintzen dute eta nektarea, polena eta ur bila irtetzen dira kalera. Erleek, polena eta nektarearen bila lorez lore dabilzanean, loreen ernalkuntza ziurtatzen dutenez, ekosistemaren orekan

funtzio berezia betetzen dute. 20-30 kilo ezti ematen ditu urteko erlategi bakoitzak. Erle batek janari iturriren bat aurkitzen badu, erlategira joan eta dantza bat hasten du, eguzkiarekiko angelu jakin batean. Dantzaren abiadura eta gorputzaren dardarrek adieraziko die besteei janaria non dagoen.

Apirilaren 5ean "Esaera zaharrak, atsotitzak, bertsolaritzan" izan zuten hizpide Emeterio Sorazu, Joan Mari Lekuona, Iñaki Murua eta Andoni Egañak.

Hainbat jakingarri: Izadiari buruzkoak, haurtzaroa, pertsonen aldaerak, heriotzarenak, lan munduari buruzkoak, festa inguruko, e.a. esaera zaharrak aurki daitezke. Lekuaren arabera, izen desberdina hartzen dute: esaera zaharra, errepiña, errakune, erranki, errankizun, erran zahar, esalege, itzur, itzar... Beti zerbait irakasten digute esaerek. XVI. mendetik hasi eta mendez mende esaera zaharrak biltzeko ohitura ez dugu galdu euskaldunok. Oihenartek zioen bezala, istorio handi baten puska dira atsotitzak eta, beraz, istorioa ezagutu gabe zaila da atsotitza ulertzea. Aditzik ez badute ere, errima bidez jositako esaldiak direnez, erraz memorizatzen dira. Bertsolaritzako molde motzetan (zortziko txikian...) esaera zaharretako estiloa erabiltzen da, gehienez bertsoaren bukaeran aurkitzen direlarik. Lehengo bertsolariek gaurkoek baino joera gehiago zuten esaera zaharrak erabiltzeko; gaurkoen artean ere, zaharrek gazteek baino gehiago, baserri girokoek urbanoek baino gehiago... Batzuk topikotzat jotzen dituzte. Bertsolarien esanak, beste bertsolari batzuk erabiltzearen poderioz, esaera bihurtu dira. Esaera zaharren "fossilizazio" gradua jakitea garrantzitsua da. Beste definizio bat: egi itxurako gauza politak dira esaera zaharrak, dotore jarritako hitzak.

"Goiherriko Euskal Eskola" K.E.

LEGORRETA

Azentzioko Jaien lehen egunetako programa



diak eta trikitixa herriko Lazkanoiturburu Lehengusuak bikoteak lagundurik. **12,30:** Pote, igel eta toka txapelketa herriko jubilatuen artean. Une berean, sagardo-dastaketa eta txorixo-jatea. **17,30:** Futbol partidua kirol-zonan, Gautxoriak / Legorretako neskak. Ondoren Kalejira herriko Lazkanoiturburu

“Nekaezinak” txarangak alaituta. **15,30etatik 18,30etara:** Haur jolastokia Kirol-gunean. **23etatik goizaldera:** Dantza saioa “Drindots” taldearekin.

Hurrengo alean emango dugu gai nontzeko programaren berri.

Eliza itxi dute

Elizaren egoera arriskutsua dela medio, arkitektoek bertan meza ematea galarazi dute. Horren ondorioz, Guadalupeko ermittan izango da eguneroko meza eta Meza Nagusia, berriz, zineman. Zinemaren inguruan hainbeste gorabehera izan ondoren, nork esan behar zuen bertan meza entzuten bukatuko genuenik! Herri honetako markak pelikula-koak dira benetan!

Maiatzak 24 Asteazkena:

20,00: Jaiei hasera emango dien suzien jaurtiketa; Gizon Pikua udaletxeko balkoian jarriko da, festak bukatu arte. **20,15:** Erraldoiak, buruhandiak eta kalejira dultzainarekin. **21,00:** Lagunarteko afaria Bilkoinen; 15 urtetik gorakoentzat (sarrerak salgai udaletxean, 600 pzta). Ondoren dantza “Nekaezinak” txarangarekin. **24,00:** Bertso eskeintza Gizon Pikuari.

Lehengusuak trikitilarien eskutik. **23,00:** Dantza-saioa “Akelarre” taldeak alaituta. **24,00:** Eskualde mailako IX. Irrintzi Lehiaketa udal pilotalekuan (Epaimahai bat izango da eta irrintzi hoberenen artean sariak banatuko dira; herriko I.arentzat sari bat izango da). Ondoren eta goizalderarte, dantza saioa Akelarre- ren eskutik.

Maiatzak 26 ostirala:

9,30etatik 12,00etara: “Haur Jolastokia” Kirol-zonan. Monitoreak izango dira eta herriko nahiz kanpoko ume guztiek parte har dezakete. **12,30:** Herriko soinu-jole eta dantzari gazteen saioa. **14,30:** Zikiro jatea Bilkoin-en,

“Errenta” antzezlan

Bederen I taldeak “Errenta” antzezlan aurkeztuko du maiatzaren 13an Legorretako Udal Pilotalekuan gaueko 10etan. Lan hau 94 urtean “Donostia Hiria” literatur sariaren irabazlea izan zen. Aktoreen artean “Xabier Txiki” herritarra ikusteko aukera izango dugu.

 Josune Amondarain

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g

Tfnua.: 88 28 93

ORMAIZTEGI

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda eguneroko menua

88 27 93

ORDIZIA



aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR

-ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO (Gipuzkoa)

Ikastolaren publikazioa legezkotzat eman da

Donostiako Auzitegi Probin-tzialak legezkotzat jo du Alkar-tasuna Ikastolak 93ko maiatzaren 20an sare publikoan sartze-ko erabakia hartu zen asanblada hura. Tolosako Auzitegiak asanblada honetan hartu zen erabakia ezezkotzat jo zuen, baina orain Auzitegi Probin-tzialak erabaki hori indargabetu egin du.

Tolosako Auzitegiak hartu-riko erabakiaren aurrean, Koo-peratibako zenbait partaidek errekurtsio bat aurkeztu zuten. Auzitegiak jasotako errekur-tsoaren aurrean, 1993ko maiatzaren 20an eginiko asanbladan ez zela inon-go arau inperatiborik eman esan du. Asanblada hartan Ikastola sare publi-koan sartzea gehiengo sinplez onartu zen.

1993ko maiatzaren eginiko asanbla-daren aurrean zenbait ikasleen guraso eta kooperatibistek lehenengo errekur-tsoa aurkeztean mota honetako asan-bladetan erabakiak bi herenetako gehiengoaz hartu behar direla argu-mentatu zuten, horrela jasotzen duela-ko Eusko Jaurlaritzako Kooperatibe-tako Legeak. Tolosako Auzitegian lehenengo sententzia argumentu hauekin ados bazetorren ere, Donostia-ko Auzitegiaren arabera "formalki ezeztatuak" ez diren akordioak in-pug-



J.L. Arriola eta Joan Jubert, Renferen Ondasun eta Kanpo ha-remanetarako zuzendaria, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

natzeko Juntan bidu zirenek bakarrik zuten eskubidea erabakia ezeztatzeko, bertako aktan adieraziz.

Ikastolak 1993ko asanblada baino lehen eginiko beste asanblada baten bidez, Hezkuntza Sailarekin akordio batera iritsi ziren, dirulaguntzen truke azpiegitura eta patrimonioa eskeiniz. Akordio honek sare publikoak sartzea-ren erabakia hartu bitarterakoa zen.

Publikazioaren aurka daudenak ez dira ados gelditu Auzitegiaren eraba-kiarekin. Jakinarazi dutenez, dagokion instantziaren aurrean errekurrituko dute.

Renfe eta Udalaren akordioa

Renfek Gernikako Pasealekuaren edo

Pergolen atzekaldean zuen kar-ga-deskargarako gunea (8.760 m²) Udalaren esku gelditu da maiatzaren 4az geroztik. Era honetan, Pergolak zabaldu egingo dira, ingurune-berde bihurtuz, eta honekin batera, he-rrian sortzen zen garraio astuna-ren gutxiagotzea ekarriko du. Renferi dagokionez berriz, Ber-nedo aparkalekuko zatia eman zaio trukean, eta N-1etik hobeto komunikatuta geldituko da, operatibitatea gehituz.

Akordio horrekin batera, 'Mikado' lurrunezko lokomo-terea Beasainera ekarriko dutela hi-tzartu dute bi aldeek. Honela, 'Mika-do'a kontserbatu eta funtzionamen-duan jartzeaz arduratuko da Udala.

Alkategaien mahai-ingurua

Ai Geala-k antolaturik, alkategaien mahai-ingurua izango da ostiralean (maiatzak 12), Udal Liburutegian, iluntzeko 8etan. Idurre Eskisabel ari-tuko da moderatzaile lanetan.

Bestalde, euskara taldeak, hilaren 14an Senperen izango den Herri Ur-ra-tsera joateko autobusa antolatu du. Txartelak ohiko lekuetan izango dira salgai.

 Izaskun Salazar - I.A.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Maila eta arlo guztiak

☎ 16 01 20
Joan de Iturralde, 5 BEASAIN

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

Artzaiak aurrera

Eta ze erremedio? Aiztondoko Joxe Antonio eta Mariano Imaz anaiek, ardiak jezteko makina berezia jarri dute. Goierri guztian ez omen dago besterik, Gipuzkoan beste 1 eta Euskal Herrian horrelako 6 omen daude. Aldi bakoitzeko 24 ardi jeztan ditu eta ordubetean 300. Lan bera egiteko 3 ordu behar omen dituzte eskuz 2 lagunek. Inbertsio haundia dela esan digute, baina erosotasunak ere ba omen ditu: garbitasuna alde batetik eta pentsua bere neurrian botatzeko aukera bestetik. Joxe Antoniok 40 urte daramatza artzai eta Marianok, berriz, 10. Antzuak Aralarra igo dituzte, baina besteak etxe aldetik dauzkate oraindik.

Herrian 7 edo 8 artzai dauzkagu artzantzatik bizi direnak. Aurrera begiratzen ez duena atzean omen dago, eta horren aitzakiarik ez dute behintzat Imaz anaiek. Osasunez urratu.

Dakienak badaki...

...ez dakienak baleki. Amilletako Klaudio Barandiaranek bota zigun enbidoa eta arrazoi osoz gainera. Herrian izan diren azken 10 alkateetatik Sabina Apalategi ez baino Okaiztik Joxemari zena egon zen denbora gehien. Joxemarik 10 urte pasatxo egin zituen, hasi 52ko apirilaren 30etik eta 62ko maiatzaren 17rarte. Orduan utzi zuen alkate makila Zelabearko Estanis Dorronsororen esku.

Alkateari zigorra?

Gipuzkoako beste 29 alkateren aurka bezalaxe, Donostiako fiskal batek Sagrario alkatearen kontra jo du, soldaduska joan behar deia egin ez duelako. Epailearen aurrean hitzegin beharko du. 6 urtez kargu publiko bat ezin bete iza-



tera eta milioi erdiko multa ordaintzera zigor dezakete.

Iker ikiarrie

Iñun dien marka guztik ontzen ai da Galdeko Joxemarin semea. 17 urte besteik ez ta Gipuzku guztiko markaik onena jarri do pixu-botatzen. Eun da bealdikoa eiñda izan bear do: oaiñ 27 urte ezkeozti zeon markea txikitu do. 16 metrotio gora bota zon 7 kilotik gora dan burni-bolea. Etaiaio mugaik ikusten Ikerren indarra. Oitzen e ai gea, baño zorionak, benetan ondo meezita dauzke ta.

Ertzainak umezai

Udalak halaxe eskatuta, Ertzaintza ari da Eskolako umeen sarrera-irteerak zaintzen. Apirilaren 24an hasi ziren lan horretan, Txuloko Juanek beste eginkizun batzuk egin ditzan. Hasi besterik ez dira egin, baina egun batzutan behintzat berandu, ordua pasa ta gero iristen dira Eskolako atarira. Komeni da garaiz joan eta erne egotea. Ea ba.

Arbiak mardul

Lurra gozo dago nonbait. Ikusteko aukera izan dugu eta Intsusti-berriko Patxi

Erauskini behinepein arbi-buru mardulak eman dizkio soroak. 11 eta 12 kilotik gora asko eta asko. Eta lorerik gabe gainera.

Epaile berria behar

Pake-epaile postua hutsik dago. Atxurrenako Xabier egon da azken 4 urteotan eta orain beste norbaitek hartu beharko du. Epailea eta ordezkoa behar omen dira. Interesatuok jo udallexera.

Bigarren saria

Azkenean bigarren saria lortu dute Eskolako haurrek, Kaja Laboralaren bideo-sketch lehiaketan. Ez dago gaizki. Iaz lehenbizi, aurtan bigarren. 750 mila pezetako saria bidai bat egiteko. Ez dakite oraindik nora joango diren baina gauza bat dute seguru: abioiez joango dira.

Hauteskundeak

Hauek dira HBk Karmele Aierberen atzetik aurkeztuko dituenak. Joxe Mari Urdangarin Begiristain, Pako Zeberio Arroki, Oihana Munduate Dorronsoro eta Joxemari Barandiaran Begiristain.

Eta batek baino gehiagok egin duen galdera. Debaterik egingo al da HB, EA eta Herrigintzaren artean? Azkeneko eztabaidak Kristau Gaztediak antolatuta izan ditu. Aurtan?

Jaiotzak

Ari dira jaiotzen otso berriak. 3. jaio da aurtan. Aurrez Errondon eta Itzaten eta orain Irubiden. Maiatzaren 5ean jaio zen Maddi. Zorionak Mikel eta Garbiñe gurasoei.

 Jon Aizpurua

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



Jon Decoración

Goierri, 15
ORDIZIA

☎ 88 17 08



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
☎ 16 17 44


ORDIZIA

Aurrekontuen proiektuari ezetza

EA, HB eta Talde Mixtoko zinegotziek, hilaren 2an egindako Udal-ple-nuan, atzera bota zuten Alkatezak aurkeztutako aurrekontuen proiektua. Alderdi politikoen ustetan, Juanbi Erauskin alkatea urteotan egin duen jestioak "suspentsio borobila" merezi du, hauen ustez, oraingo Alkatezak ez baitu aurrekontuetan ezer berririk aportatu, zorrak baizik. EA, HB eta Talde Mixtokoek jarrera hau hartzen zuten bitartean, jeltokideak harri eta zur geratu ziren zer esan etzekitela. PSOEkoak, aldiz, ixilik geratu ziren.

3 alderdiok aurkeztutako idazkian garbi geratzen zen beraien artean dituzten ideologi arazoak alde batera utzi eta herriaren mesederako lan egin beharra dagoela. Hauek adierazi dutenez, azken 3 urteotako aurrekontuek defizita suposatu dute Udaleko kutxetan, alkatea eta bere kideak behar adina subentzio lortzeko ez direlako gai izan, eta, ondorioz, maileguetara jo izan dutelako. Honek, jakina, zorketa berriak dakartza.

Guzti hau dela eta, esan bezala, Alkatezak aurkeztutako aurrekontu proiektuari ezetza eman zioten EA, HB eta Talde Mixtoko zinegotziek. Gauzak honela, alderdiok idazki bat pres-tatzekotan dira, behin-behinekoa bada ere udaletxeak eguneroko zereginetan jarrai dezan Gorporazio berria osatu arte.



Pintadak

Bere garaian "Goierrri-Kosta" ETAre komandoko partaide izateagatik eta, besteak beste, Ordizian Maria Dolores Gonzalez Katarain "Yoyes" erahil zutenen partaide izateagatik kartzelera-tua izan zen Josemi Latasa Getaria du-gu oraingoan aipagai. Orain dela gutxi, eman zioten permisu bat aprobetxatuz, ordiziar honek zenbait komunikabide-ren aurrean adierazpen batzuk egiteko beta izan zuen. Latasak bertan adierazi zuenez, ETA guztiz aldatu da bera 70eko urteetan partaide izan zenetik hona. Esan zuenez, ez du jatortzat jo-tzen ETAk azken boladan egin dituen zenbait atentatu (Gregorio Ordoñez, Jose Maria Aznar...). Guzti hau dela eta laster agertu ziren herrian "Latasa da-mutua", "Latasa hipokrita", "traido-rea" eta antzeko pintadak. Udalak be-

rehala eman zuen berauok ezabatzeko agindua. Bitartean, alkatea beldur da ea ez ote den "Yoyes" zenarekin gertatu-tako bera emango.

Ekitaldi arrakastatsua

Aurreko alean adierazi genizuen beza-la, "Ordiziako Mendizaleak" 50. ur-teurrena ospatzen ari da. Horretarako, apirilaren 30a aukeratu zuten jai handia egiteko eguntzat. Txindoki edo Larru-narriranzko igoera herrikoia antolatu zuten, eta berau, arrakastatsua izan zen. 600dik gora mendigoizale ordiziar bil-du ziren eta eguraldia lagun zutela izu-garrizko luntxa dastatzeko aukera izan zuten guztiek Larraitzen. Amaitzeko, Oiangun egindako bazkarian umore ona eta festarik ez zen falta izan.

 Aitor Calvillo

JAKINTZA IKASTOLA

Aurrematikula epea irekia
Maiatzaren 18 arte

B. B. B. eta U. B. I. ko ikasleentzat

- * Kalitatezko heziketa
- * Eskola euskalduna
- * Irakaslego iraunkorra
- * Azpiegitura egokiaz hornitua

Izen emateko lekua
Altamira Auzoa
Tfnoa.: 16 05 40



Umeen erropa
denda

Aukera zabala
prezio ezin
hobean

Santa Maria, 13
☎ 16 12 39
ORDIZIA

Bixente Gorostidi Bertsolari Gazteen Txapelketan irabazle

Joan zen apirilaren 29an jokatu zen Osinalde elkartearen XXIV. Bertsolari Gazteen Txapelketa eta bertan Bixente Gorostidi amezketarra izan zen irabazle. Saio honetan sei bertsolari gazte aritu ziren: Andoni Otamendi, Lasarte-koka; Leire Bilbao, Ondarruko; Asier Otamendi, Urretxukoa; Beñat, Abadiñokoa; Bixente Gorostidi, Amezketakoa eta Xabier Legarreta Aranokoa.

Saioa, hasieran batez ere, motel samarra izan zen eta iazkoarekin alderatuz nahiko kaxkarra. Dena dela, hirunaka zortziko txikian hasi zirenean bertso polit xamarrak entzuteko aukera izan genuen eta kartzelako gaian ere bizpahiru nahiko poliki aritu ziren. Baina, kartzelako lan honetan Andoni Otamendi izan zen gaiari ongien heldu ziona eta bertsorik onenak berak bota



Eskubitik hasita, Leire Bilbao, Andoni Otamendi, Bixente Gorostidi eta Xabier Legarreta.

zituena. Horren ondorioz, kartzelako saioko saria berarentzat izan zen.

Bi sari hauetaz gain, bertsorik onenarentzat ere bazen beste sari bat eta hau txapeldunak berak lortu zuen, hain zuzen ere, alkategaiari zer eskatuko liokeen erantzunez bota zuen bertsoarengatik eta logelakoarengatik.

Azkenik, Xabier Legarretak jaso zuen txapelketako bigarren onenarentzako saria.

Markos Madina Bola Txapeldun

Maiatzaren 6an jokatu zen gure herriko Udal Bolatokian Goierriko Bola Txapelketako azken saioa eta puntu guztiak batu ondoren Markos Madina legazpiarra izan da aurtengo irabazlea 361 punturekin. Bigarren, Migel Arrospide 358rekin eta hirugarren German Gereñu 357 punturekin. Herritarren artean punturik gehien lortu duena Migel Mujika izan da 318rekin. Txapelketa honetan zortzi saio izan dira eta saio bakoitzean zortzina bola bota behar izan dituzte.

 Gabino Murua

OLABERRIA

Joxepa Usabiagak 95 urte bete ditu

Joxepa Usabiaga, Insausti-Berri baserrikoa herritar zaharrena dugu. Maiatzaren 9an 95 urte bete zituen eta hala ere osasunez oso ondo dago. Joxepa 1900. urtean jaio zen Okobio baserrian, Zaldibi eta Lazkaomendi mugan dagoen baserrian. "6-7 urterekin hasi nintzen eskolara joaten. Gaur egun Lazkaomendiko ermittaren ondoan dagoen baserria zen gure eskola. Behin eskolan geundela bapatean hots arraro bat entzun genuen, ume guztiak kanpora atera ginen eta orduan ikusi genuen lehen aldiz automobila", adierazi digu Joxepak.

Eskolan hasiera batean euskaraz ikasten bazuten ere, gero erderaz hitz egitera behartuta egon ziren. "Eskolan euskeraz hitz egiten bagenuen zigor bezala eraztun bat jartzen zitzaigun, honela eraztuna zeukanak lagunena bati euskeraz hitz egiten entzun ezker hari ematen zion".

22-GOIERRITARRA



Baina Joxepak eskolako bizipenak utzi eta ondorengo garaia ekarri ditu gogora: "hamar urte inguru nituela neskame bezala joan nintzen Donostiara eta 26 urterekin etorri nintzen Olaberriara. Olaberrian sukaldari bezala lan egin nuen maestra baten etxean. Gero Joxe ezagutu nuen eta berarekin ezkondu ondoren hemen bizi naiz".

Gazte garaian ez zuten dirurik erabiltzen. "Garia zenez uza oparoena, trukaketa gariarekin egiten genuen. Apaizari ere gariarekin ordaintzen genion eta baita beste hainbat behar ere". Joxeparen ustez, gaur egun bera hobeto bizi da. "Orain erosoago bizi naiz, lehen lana besterik ez genuen egiten eta jana ere urriagoa zen".

Zaharren Egoitzako junta

Igaro den apirilean ireki zen Zaharren Egoitzak badauka bere junta. 8 lagunez osatua dago: lehendakaria Carmen Urrutxi; lehendakariordea Joxe Kerejeta; diru arduraduna Afrosio Castro; idazkaria Franzisko Aizkorbe; eta bokalak Julia Apaolaza, Juana Urrestarazu, Victor Tomas eta Antonio Castaño. Bestalde, Egoitzan hasi dira joku ezberdinak antolatzen.

 Nagore Goiburua

Ardo partiketa eta herri afaria



Luis Ordozgoitiri azaldu zitzaion irudiak 12ren bat z.m. ditu, brontzekoa da eta San Ixidoren janzkera tipikoa du. Bi eskuen azpian duen zuloa batetik irtenda makiltxo bat ere ba omen zuen.

Datorren astelehenean hilaren 15ean, ohitura den bezala herritarren arteko afaria egingo da San Ixidro eguna ospatzeko. Aurrez ardo partiketa egingo da eta afari garaian ere hantxe egongo da barrika, pitxarrak ardoz betetzeko. Ondoren bertsolariak eta trikitixa ere izango dira.

Duela 20ren bat urterarte, elizako sakristian dagoen San Ixidoren irudia prozesioan ateratzen zuten. Eramaleak baserritarrak izaten ziren eta herriari buelta osoa ematen zioten. Egun berean, ardo partiketa eta herri afariaren aurretik pelota partiduak, izaten ziren.

Bada San Ixidoren inguruko istorio kurioso askoa Errotaberri baserrian. Bertakoa zen Luis Ordozgoitiri gertatutakoa da, gaur Errotaberrin bizi den Luis Ordozgoitiren aitonari. Baserri lanak zirela eta, San Ixidro eguneko mezataria joaterik ez, eta bere partez Nikolaxa Ordozgoiti alaba bidali omen zuen. Gaur zelai dagoen etxe aurreko Muttegitxo soroan, elizako kanpai bueltakoak adituz aran ari zela, lurrartean zerbait arraroa sumatu, eskuz lurra alde batera kendu eta irudi txiki bat azaldu omen zitzaion, San Ixidorena. Ordutik, irudia eta beraren istoria harro asko gorde eta kontatu izan dute Ordozgoititarrek.

Udal hautagaiak

Udal hauteskundeetara aurkeztuko diren hiru alderdien hautagaiak ondorengoak dira: **EA:** Karmen Etxeberria, Xabier Telleria, Inmakulada Gabilondo, Mari Jose Arrondo, Gurutz Goikoetxea, Mikel Areizaga, Jon Agirre, Joxe Manuel Ormazabal, Blas Ariztimuño, Jose Mari Auzmendi, Felix Jauregi eta Xabin Aldanondo. **HB:**

Jabier Albizu, Rafael Gerriko, Aitzol Telleria, Luis M. Telleria, Martxelino Elorza, Xabier Aseginolaza, Iñaki Garaialde, Oier Berasategi, Julian Imaz, Bixente Albisu, Felix Lardizabal eta Xalbador Agirre. **EAJ:** Peio Agirrezabal, Manu Errezola, Jexux M^a Ormazabal, Maritxu Urreta, Juan Angel Egaña, Patxi Azurmendi, Ramon Leturia, Xalbador Olaziregi, Joxe M^a Zabaleta, Krux M^a Insausti, Iñaki Etxeberria eta Joxe Aristimuño.

Joseba Auzmendi txapeldun

Joseba Auzmendi izan zen txapeldun Ezkurrarekin batera, Galarretako XXV. urteurreneko erremonte txapelketako finala 40-30 irabazi ondoren Elizalde-Etxabe bikoteari. Zorionak! Bestalde, herriarteko joaneko 3 partiduak Eskoriatzari irabazi ondoren, maiatzaren 12an gaueko 10etan jokatuko dira itzuliko partiduak.

Herri Urrats

Elorri kultur elkarteak antolatuta Herri Urratserako autobusa irtengo da maiatzaren 14ean, goizeko 8etan herriko plazatik. Tikeak Elorripe tabernan eskura daitezke, autobusa bakarra izango da eta hau bete orduko ez da tike gehiagorik izango.

 Joseba Telleria

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37

Kultur Eguna S. Andres Herri Eskolan

Maiatzaren 15ean egunean ospatuko dute Herri Eskolan Kultur Eguna. Hainbat ekintza antolatu dituzte eguna ospatzeko. Eskolaurrekoek, "Erreka Mari" eta jokuak izango dituzte. 1. eta 2. mailakoek, Pello Añorga inpuin kontalaria eta tailerrak izango dituzte. Zahar-
txeagoek, Xabier Mendi-
guren idazlearen bisita, bertso saioa, tailerrak eta irrati saioa izango dute. Meriendaren ondoren, Setan, nahiko barre egiteko aukera izango da Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoekin.

Jubilatuen jokuetako emaitzak

Apirilaren 22 eta 23an Jubilatu Elkar-
tean mus, puntu, botte eta tokako jo-
koak egin ziren. Jokuetako sailkapenak
honela geratu ziren:

* Mus Txapelketa: 1.a: Inazio Lapi-
zondo eta Patxi Elorza; 2.a: Santiago
Intxausti eta Ramon Ezkurdia; 3.a:
Mariano Izagirre eta Pedro Iza.



* Toka Txapelketa: 1.a: Joakin Irurzun;
2.a: Isidoro Criado; 3.a: Pedro Iza.

* Botte Txapelketa: 1.a: Mariano Iza-
girre; 2.a: Isidoro Criado; 3.a: Ramon
Ezkurdia.

* Puntu Txapelketan emakumezkoak
eta gizonezkoak jokatu zuten. Ema-
kumezkoetan: Karmen Sarasola eta
Carmen Aguado 1.ak; 2.ak: Madalena
eta Maria Aldanondo; 3.: Manuela
Oiarzabal eta Patri Urkia. Gizonezko-
etan: 1.: Santi Izagirre eta Fausto Gurre-
txaga; 2.: Inazio Lapitzondo eta Patxi

Elorza. Joku bakoitzean
garaile gertatu zirenek,
Beasainen ospatuko diren
komarkaleko txapelketan
parte har dezakete.

Errioxara bidaia

Kutxak hirugarren adine-
koentzako Errioxarako
bidaia bat antolatu du
maiatzaren 29rako. Ibil-
bidea honako hau izango
da: Irteera goizeko 8retan
herriko Kutxaren aurretik
Briñas herrirantz. Bertan

hamaiketako egin ondoren, Sajazarra
aldera irten eta bertan hiriaren erakus-
taldia egingo da. Ondoren Lapuebla de
Labarka aldera hurbildu, Covilla Bo-
degak ikusi eta bertan bazkaldu. Aarra-
tsaldean Logroño bisitatu, ondoren he-
rrirako itzulera hartuz. Kutxaren bidez
pentsioa kobratzen dutenentzako bi-
daiaren prezioa 3.000 pezetakoa da;
gainontzekonetzat 4.000.

 Aitziber Murua

ZERAIN

Etorkizunari aurre egiteko gogoarekin

Zeraingo baserrien eta zeraindarren
berri ematen duen ikerketa (1994koa)
egin berri du Adok enpresak. Demo-
grafia (familiak eta produkzio bideak)
eta etorkizunaren nondik norakoak az-
tertzea izan da ikerketa honen helburu
nagusia.

1994an 232 biztanle zituen Zerai-
nek. 1900ean, 552. Mende batean, %50
biztanle gutxiago dago. Biztanleetan
gainontzeko herri txikietan gertatzen
ez den beste datu bat gertatzen da:
emakumezko gazteak (36 urtetik go-
rakoak batez ere) gizonezko gazteak
baino gehiago dira. Emakumezkoak
herrian gelditzeko joera handiagoa
daukate, gizonezkoek baino. Dena den,
Zerainen bizi direnek ez omen daukate

herria uzteko inongo asmorik (beste
baldintzarik ez badago behintzat). Ber-
takoak sentitzen dira zeraindarrak, la-
saitasuna, herri erakargarria eta giro
ona azpimarratzen dute horren arra-
zoitzat. Hala ere, produktibitateari da-
gokion jaitziera, hau da, baserriko pro-
dukziori dagokiona, askoz ere haun-
diagoa eta kezagarriagoa da: %85ean
jaitsi da.

85 baserri daude guztira: 36etan bizi
egin dira; 14 dira 2. etxebizitza bezala
erabiltzen dutenak; 27 hutsik daude eta
8, erorita. Aizpe auzoan esaterako, 24
baserri badaude ere, 4 besterik ez daude
beteta. Produkzioari dagokionez, zen-
baki horiek gutxitu egiten dira. Base-
rritik bizi direnak edo mistoak direnak

(baserritik eta industria/zerbitzuetatik
diru iturriak dituztenak) 23 dira. Ba-
ratzeko produktuak, pinuak, haragia
eta sagarrak dira gehien produzitzen
direnak.

Itxaropentsu eta baikor daude herri-
tarrak, Zeraingo etorkizunari eta Ze-
rain Proiektuari buruz. Gustora daude
egiten ari den lanarekin, eta bizi kali-
tatearen hobekuntza nabari omen dute.
Bertako baserriko produktuak bultza-
tzea garrantzitsua ikusten dute, eta ga-
rraintzitsuen dena, lanerako gogo-
arekin daude zeraindarrak.


 L.A.

Mountain bike zirkuitua Zerainen

Zerain beti ari zaigu zerbait berria eskeintzen. Azken nobedade bezala mendiko bizikleta zirkuitu txukun bat prestatu dute. Zerain herria eta bere inguruak ezagutzeaz gain kirola egiteko aukera eskeiniaz. Gaur egun mendian bizikletaz ibiltzeko dagoen zale-tasuna kontutan hartuta arrakasta ziurtatua du zirkuitu berriak.

Zirkuitua, Zerain kaskotik abiatu eta Aztiria bidetik Aizpea auzora inguratzen da, Aizpe erreka jarraituaz. Legazpiko lurretan sartualdi bat egin ondoren, Oamendi inguruan dagoen Arripilatan hartzen du altuerarik handiena (840m). Zegamako mugaren ingurutik jarraitzen du, Barbari auzotik pasa eta Segurako lurak ikuitu ondoren Zeraina itzultzen da. Honelaxe osatzen dira zirkuituak dituen 13 kilometroak.

Ibilbidearen lehen zatia beti ere goraka da, 280m-tan dagoen presagaine-



rik Arripilataraino. Ondoren gehiena aldapa behera da, Barbari inguruan duen igoeratxo bat kenduta. Ibilbidean eta inguruan bada zer ikusia. Herritik gertu dagoen San Blas ermita, Aizpea

auzoko labeak, Oamendiko trikuharria eta bidean dauden hainbat baserri eder eta bazter ikusgarriak.

Txomin Aierdi

Bizikletaz ibili ondoren ZERAINek zerbait gehiago eskaintzen dizu

OTATZA

Sagardotegia
☎ 80 17 57

MANDIOA

Taberna
☎ 80 17 05

OSTATUA

Jatetxea
☎ 80 17 99

HERRIKO PRODUKTUEN DENDA


INFORMAZIO GUNEA: 80 17 05

Gidaturiko bisitak egin daitezke ohizko moduan

ZERAIN PROIEKTUA

Udaletxea: 80 17 27

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Goierri

*Jon eta Aitor Sarasuak
Goierri jarritako bertso
sorta, Ai Geala-k antolatu-
rik, Usurbe antzokian egin-
dako jaialdian kantatuak,
"Fauna txiki bat, bertso
berrian"-en barnean.*

Doinua: Iparragirrerena.

Horra abere sorta txiki bat
kaiolatik irtenda
beti kritika jaurti behar hau
nola ote liteke senda
horrenbestekin aski
izango dugu noski
zer espero zenuten ba
espektatiba asko sortzea
arriskutsua izaten da.

Ari gabela, ari gabela,
Aigeala jatorrena
jatorrak dira taldean eta
jatorregia izena
legea bada arma
hausteak badu xarma
ez da gauzarik txarrena
izena lortzen jardun beharrak
ematen duen kemena.

Jatortasuna beti izan da
Goierritarren kultura
horra herriak mendiko gauzaz
izendatzeko ohitura.
Bata dugu barea
bestea txixarea
eta aza hango hura
ta azken finean bizi zaizkigu
guztiak CAFen kontura.

Jatortasuna, freskotasuna
kontsolagarri zozoa
baina akaso ez da izango
gutziz jende inozoa
Agirre, Zeberio
Jaurlaritzan serio
ta Garmendia gozoa
goierritarren pean daukagu
euskal kultura osoa.

Garai batean ETAn harrobi
genuen Goierri bera
orain heldu da Jaurlaritzaren
harrobia izatera
aldakorra da fama
entzun izan dudana
noa hemen esatera
alpertokiak omen direla
politikoen kantera.

Kritika eta lanen artean
nun ote dago gakoa
muga horretan jolas eitea
dugu oso gustokoa
Goierri osoari
eta Garmendiari
horra ziri antzekoa
izan eta egin egin behar du
itxura ez da nahikoa

Bai Aigeala ai zeate ta
burua harro eduki
goitik ariko direlakotan
euskararenak erruki
kultura ta kirola
lantoki ta eskola
bada hainbeste barruti
barea ere denborarekin
joan liteke urruti

Lazkao Txikiren ateraldiak

Arantzazun bisitari

Herririk herri pentsu saltzaile ibiltzen zen
orduan Lazkao Txiki. Arantzazuko eliz
aurrean lagun batekin kontutan ari zela,
egunonak eman eta tentatzen hasi omen
zitzaion praile ba:

-Egunon Joxemiel, zu ere hemen?

-Bai, etorri naiz ba...- erantzun Lazkao
Txikik bizkor.

-Aizu, eta nolatan etorri zara ba Aran-
tazuraino? -galdetu zion praileak.

-Banekien hemen txerri asko zegoela
eta...

Lana

Lagunartean kontutan hasi eta batzuek
lan gehiegi egitea txarra zela esaten omen
zuten; gutxiegi egitea ere ez omen dela
ona zioten beste batzuek. Eta Joxemielek
orduan, ondorengo ateraldi honekintxe,
laster baretu omen zituen hango eztabai-
dak:

-Onen-onena, batere lanik ez egitea.

Itsasondokoa

Mendizabal eta Lazkao Txiki bertsotatik
omen zetozen. Haurdun zegoen emaku-
me batek ingurutik pasatzean agurtu egin
zituen. Lazkao Txikik ezagutzen ez, non-

bait, eta galdetu omen zion Mendizabali:

-Hi, aizak! Zein huen emakume hori?

-Hori? Ezagun bat, zera, Itsasondokoa.

Eta Joxemielek irribarrez:

-Itsasondokoa den ez zekiat, baina isa-
tsondokoren bat hartu dik behintzat!

Neska baten gainean

Bizkai aldean bertsotan ari zela, gaijar-
tzaileak honela agindu omen zion:

-Orain Lazkao Txikik kantatuko digu
bertso bat neskata baten gainean.

Eta Joxemielek honela erantzun:

-Aizu, neri neskata baten gainean ez
zait bertsorik bururatzen! Zer uste duzu,
ni zurezkoa naizela ala?

Ziriako

Aspaldian ikusi gabe zuen emakume bat
topatu zuen Lazkao Txikik Ordiziako
ferian. Gaztetako garaia gogoratzen ha-
si eta berriketan aritu ondoren, hauxe
galdetu zion Joxemielek:

-Hi, ezkondu hintzela ere esan zidaten,
eta nola din ba izena hiri senarrak?

-Ziriako - erantzun zion emakumeak.

-Ziriako? Orduan ez dun gaizki auke-
ratu zirirako!

Perretxikotan

Joxemiel etxeko atarian sega pikatzen ari
zela, hara non etortzen zaion menditik
kaletar bat poltsakada bat perretxiko es-
kutan zuela.

-Egunon Joxemiel, mendian egon naiz
perretxikotan eta poltsakada hau bildu
dut.

-Hik daukak meritua, hik! Gu askotan
ibiltzen gaituk perretxikotan eta ez diagu
alerik ekartzen, eta hik, egonean, poltsa
osoa bete duk.

Luky

Behin ataundar bat lagun zuela, Amezke-
tara joan zen Joxemiel, behi bat salgai
zegoela eta. Biak behia salgai zegoen ba-
serriko etxaurrera inguratu eta txakur
ihar-ihar bat gerturatu omen zitzairen
zaunka bizian. Orduan Joxemielek ba-
serritarrari:

-Zakur honek nola dik izena?

-Honek? Luky.

Eta Joxemielek:

-Horrela edukitzekotan batere ez edu-
ki! Behiak ere halamoduz edukiko dituk
hik!

Egun hartan traturik egin gabe etxeratu
omen zen Lazkao Txiki.




Ordiziako Mendizaleak Igaratzan 1965ean

Xanti Mendizabalek ekarri digu honoko argazki hau. 50. urteurrena bete duen Ordiziako Mendizaleak taldeko partaideek, 1965ean, Igaratzara egin zuten ibilaldiko erretratua da.

Zutik: Andres Pozuelo (Bartzelonan bizi da), Mariano Perez de Biñaspre, Patxi Mujika, ezezaguna, Jesus Cordero, Joxe Mari Alberdi, M^a Isabel Migel Agirre, Migel Angel Redondo, Marzelino Azkunaga, Xanti Mendizabal, Agustin Azkunaga, Joakin Biana, Felisa Miguel.

Eserita: Antonio Calvo, Maria Segurola, Francisco Simon, Fernando Martin, Jesus Cordero (semea).

Erretratu zaharrik baduzu, bidali Ordiziako 124 posta kutxatilara. Hutsik egin gabe itzuliko dira.



GIPUZKOA GURE HITZA



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i o K , c . b .

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO



**Elkar lanean
lazkaotarren bizimodua
hobetu dezagun.**

Eman Botoa  **EAJ
PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna



**Nahiago dugu ezin dena
eskeini eta ahal dena egin
baino, ahal dena eskeini
eta ezin dena egin.**

Eman Botoa  **EAJ
PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna



**Zegama berriztu
eta bultzatu dezagun.**

Eman Botoa  **EAJ
PNV**
Esperientzia eta Etorkizuna